



*Prensa oharra*

## **EROSKI FUNDAZIOAK ETA EUSKADIKO ZELIAKOEN ELKARTEAK (EZE) LANKIDETZA HITZARMENA BERRITU DUTE**

- Bi erakundeek orain urtebete sinaturiko hitzarmena berritu dute, eta elkarrekin lan egingo dute elikadura espezifikoa behar duten pertsona zeliakoei erosketa baldintza hobek eskaintzeko elikagaietan
- Kooperatibak konpromisoa hartu du eskaintza osatua edukiko duela glutenik gabeko produktu espezifikoetan, bai merkatuan lider diren marketakoak eta bai bere markakoak ere; hain zuzen, azken horien eskaintza ugartu egin du berriki
- EROSKI k %20ko deskontua eskaintzen die EZEko bazkideei glutenik gabeko produktu espezifiko bakoitzean, eta EROSKI Club txartelean sartzen die aurrezten duten dirua
- Lehen urtean, 1.426 erabiltzailek jaso dute zerbitzu honen onura, eta hori EZEko bazkideen %50 inguru da.

Elorrio, 2019ko maiatzaren 22a.- [EROSKI Fundazioak](#) eta [Euskadiko Zeliakoen Elkarteak \(EZE\)](#) lankidetzaren hitzarmen sinatu zuten iaz, eta elkarrekin lan egingo dute aurrerantzean ere elikadura espezifikoa behar duten pertsona zeliakoei erosketa baldintza hobek eskaintzeko elikagaietan. Hitzarmena berritzeko ekitaldian, hor izan dira EROSKI Fundazioko Osasun eta Iraunkortasun arloko zuzendaria, Alejandro Martinez Berriochoa, eta EZEko zuzendaria, Mireia Apraiz.

EROSKI k berriz hartu du konpromisoa glutenik gabeko produktuen eskaintza hobetzeko bere saltokietan, non gaur egun 2.500 produktu baino gehiago aurki daitezkeen merkatuan lider diren marketakoak. Horretaz gain, konpromisoa hartu du bere markako produktu espezifikoak ere eskainiko dituela glutenik gabe, eta EZE erakundeak egiaztatuko ditu merkatura ateratzen diren produktu berriak. "*Orain dela urtebete, glutenik gabeko 500 produktu bermatu baino gehiago genituen gure markaren barrenean, eta orain produktu espezifikoaren beste sorta bat dugu. Hitzarmena berrituta, beste pauso bat eman dugu [Osasunaren eta iraunkortasunaren arloan hartuak ditugun konpromisoetan](#), zeinetan kontuan hartzen ditugun elikadura espezifikoa behar duten pertsonen nutrizioaren ikuspegitik dituzten beharrezkoak, kasu honetan zeliakoenak*", adierazi du

---

### **EROSKI**

Komunikazio Korporatiboko zuzendaria  
XURDANA FERNANDEZ

Tel: 946 211 214

[comunicacion@eroski.es](mailto:comunicacion@eroski.es)

### **EROSKI – PRENTSA BULEGOA CONSEJEROS DEL NORTE**

JOANA G. LANDAZABAL  
EDURNE IZQUIERDO

Tel: 944 158 642

[Online prentsa aretoa](#)



Alejandro Martinez Berriochoa EROSKIko Osasun eta Iraunkortasun arloko zuzendariak.

Beste helburu bat ere badu EROSKIk hitzarmen honekin, oraintxe aipatu dugunaz gain: EZEko bazkideei %20ko deskontua eskaintzen die glutenik gabeko produktuak erosten dituzten bakoitzean, izan EROSKI markakoak edo izan glutenik gabeko produktuak egiten dituzten ekoizle espezifikoenak. Urtebeteko ibiliaren ondotik, dagoeneko 1.426 erabiltzaile ditu, eta hori EZEko bazkideen erdia da gutxi gorabehera. Deskontu hori gauzatzeko, EROSKI Club txartelaren diruzorroan sartzen zaie aurreztu dutena. *"Etxean zeliako bat duten familiek gastu handiagoa izaten dute oinarrizko elikagaiak erosteko garaian. Hitzarmen honen bidez, EZEko bazkide izan eta etxean kide bat gutxienez zeliako duten familiek aukera izango dute urtean 300 euro baino gehiago aurrezteko"*, azaldu du Martinez Berriochoak.

Euskadiko Zeliakoen Elkarteak, bestalde, konpromisoa hartu du modu aktiboan laguntzeko eta beharrezkoa den aholkularitza eskaintzeko kooperatibari, zeliakoen kolektiboak produktu eta zerbitzu eskaintza egokia eduki dezan. *"Euskadiko Zeliakoen Elkartea oso pozik dago EROSKIk eta biek orain urtebete sinaturiko hitzarmen honen arrakastarekin; EAEn antolatzen dugun zeliakoen egun nazionalarekin bat egiten du, gainera. Hitzarmena berrituta, beste lorpen bat eskuratu dugu gure aldarri nagusietako batean: glutenik gabeko produktuek daukaten prezio handia arintzea. Eta ildo horretan jarraitu nahi dugu"*, adierazi du Mireia Apraiz EZEko zuzendariak.

## **EROSKIri buruz**

Kooperatiba izaerako Espainiako lehen banaketa taldea da EROSKI, eta erreferentziazko operadorea Galizian, Euskal Autonomia Erkidegoan, Nafarroan, Katalunian eta Balearretan. 1.652 saltokiko sare komertziala du. Saltoki motari dagokionez, baditu supermerkatuak, hipermerkatuak eta cash&carry-ak eta, horretaz gain, gasolindegia, bidaia bulegoak eta kirol ekipamendurako dendak ere bai. Sei milioi Bezero-Bazkide baino gehiago ditu, eta 33.000 kooperatiba-bazkide eta langile-bazkidetik gora.

## **Euskadiko Zeliakoen Elkarteari buruz**

---

### **EROSKI**

Komunikazio Korporatiboko zuzendaria  
XURDANA FERNANDEZ

Tel: 946 211 214

[comunicacion@eroski.es](mailto:comunicacion@eroski.es)

### **EROSKI – PRENTSA BULEGOA CONSEJEROS DEL NORTE**

JOANA G. LANDAZABAL  
EDURNE IZQUIERDO

Tel: 944 158 642

[Online prentsa aretoa](#)



Euskadiko Zeliakoen Elkartea (EZE) erakunde pribatua da, irabazteko asmorik gabea, eta bertan borondatez parte hartzen dute gaixotasun zeliakoa diagnostikatu dieten pertsonak, adingabe zeliakoen guraso edo tutoreek eta glutenik gabeko dieta egin behar duten pazienteek. Bere helburua da doako laguntza eskaintzea glutenarekiko intolerantzia duten pertsona guztiei, eta irtenbiderik egokienak ematea egoera horrek berekin ekar ditzakeen arazo sozialei, psikologikoei eta teknikoei.

---

**EROSKI**

Komunikazio Korporatiboko zuzendaria  
XURDANA FERNANDEZ

Tel: 946 211 214

[comunicacion@eroski.es](mailto:comunicacion@eroski.es)

**EROSKI – PRENTSA BULEGOA  
CONSEJEROS DEL NORTE**

JOANA G. LANDAZABAL  
EDURNE IZQUIERDO

Tel: 944 158 642

[Online prentsa aretoa](#)